



Done Joanes ermita

Aldacrak: San Juan
Ahozkoa:



43° 9' 41"

2° 33' 53"

Berriz Irudian / A. Arbulu

Murgoitioko kofradiaren ermita San Juan Bataiatzaileari dedikatutakoa da. Oinplano luzenka, tramu bakarra eta burualde zuzena dauka, baita sarreran atrio moduko bat, harrizko jarlekuekin, alboetako hormak luzatuta lortu dena. Inguruko ermiten antzera, elizpea dauka inguratzen. Berorren teilatuari eusteko,

koloma klasiko arinak daude aurrealdean; eta aldamenetan eta ostean, harrizko zokaloa eta egurrezko zutikoak. Harlangaitza da nagusi eraikinean, baina kantaletan harlandua erabili zuten. Barrualdea ikusi ahal izateko, aterpean zokaloa eta egurrezko hesia daude, eta honetan, atea.

toponimia

Done Joanes Bataiatzaileak gurtza handia izan du Euskal Herrian, eta, horregatik, badu euskarazko izen berezia, tradizio handiko beste santuek bezala (Done Jakue, Done Petri...). Tamalez, XVI. mendeko Trentoko kontzilioaren ostean, santuen euskal izenen erabilera gutxitzen joan zen, eta gehienetan, desagertu edo zokoratu egin ziren. Abadiñoko San Bizente basilizaren aurreko baserria Done Bikendi da (San Bizenteren izen jatorra), eta Mikeldi izena agertzea Durango San Vicente ermitaren ondoan ez da arraroa, Bikendiren ahozko aldaera delako. Ahozkoan ere, Bizkaian arrunta zen "Donien atxa" deitzea Done Joanesen enborrari.